

Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren eskuliburua

Dokumentu hau 2024/09/05ean onartu zen eta 2025/07/15ean zenbait aldaketa eta eguneraketa egin zaizkio.

1- UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO (UPV/EHU) ZUZENBIDE FAKULTATEAREN KALITATE POLITIKA ETA HELBURUAK

Zuzenbide Fakultateak bere kalitate politika eta helburuak berrikusi ditu, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) plan estrategiko berrituan argitaratutako irizpideei jarraituz.

UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateak, bat etorrira unibertsitatearen 2022-2025erako plan estrategikoarekin, bere egin ditu gure erakundeak bere jokabide eta funtzionamendurako ezarri dituen ardatz estrategikoak, helburuak eta ekintzak. Zuzenbide Fakultateak berresten eta indartzen du bere kalitate eta bikaintasun konpromisoa, goi mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa eskaintzeko irakaskuntzaren, ikerketaren, ikaskuntzaren, proiektzio sozialaren eta kultura eta unibertsitate hedakuntzaren bitartez eta kudeaketa prozesuen bidez. Era berean, sustatzen ditu jakintzaren transferentzia, nazioartekotzea eta unibertsitatea erantzule izatea bere zerbitzuaren hartzailea den gizartearen aurrean.

Zeregin horretan laguntzen diote ikasleek, irakasleek, koordinatzaileek, dekanotza taldeak, teknikariek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek, eta zuzenbidearen eta justiziaren arloko profesionalek eta administrazio publikoek. Edozelan ere, fakultatea beti ahaleginduko da herritarren eskubideak hobetzearen alde, gizartea bera izango baita onuraduna fakultatearen prestakuntza eta ikerketa helburuak betetzen badira gure graduatuen eta graduondoko tituludunen bitartez.

UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateak bere ikerketa eredua indartu nahi du, gizarte, kultura, ekonomia eta ingurumen arloetako erronka berrietara bideratua eta haiekin konprometitua, horretarako diziplinarteko eta nazioarteko lankidetzara sustatuz, eta ingurune sozioekonomikoarekiko elkarlana bultzatuz, jakintzaren bidez gizarte eraldaketan lider izateko bokazioarekin.

Hauek dira fakultatearen kalitate politikaren ildoak:

1. Fakultatea nazioartekotzea, harreman akademiko eta pertsonalen espazio irekiagoa izan dadin.
- 2.- Graduon eta graduondoko eskaintza akademikoa zabaltzea, osagai profesional espezializatua daukaten proposamenei atea irekiz, gizartearen eta arlo profesionalaren eskakizunei erantzuna emate aldera.
- 3.- Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) eta transferentzia sozialekoak betetzen lagunduko duten irakaskuntza eta ikerketa jarduerak bultzatzea.

4.- Fakultatearen jardunaren proiektzio sozial eta instituzionala indartzea.

5.- Fakultatearen eraldaketa digitalerako neurriak bultzatzea formula teknologiko berriak baliatuz, konektibitatea sustatzeko eta bere arloetako ikerketa eta ikasketetan adimen artifizialaren erabilera bultzatzeko.

6.- Fakultatearen eta lehen, orain eta etorkizuneko ikasleen arteko lotura areagotzea, ikasleen garapen profesional eta humanoa bultzatuko duten harremanak lantzeko.

7.- Unibertsitateko kideek parte hartzea kalitate politika etengabe berrikusteko lanean.

UPV/EHUko Plan Estrategikoa eta azaldutako ildoak kontuan hartuta, helburu hauek ezarri ditugu:

I. NAZIOARTEKOTZEA

1.- Zuzenbide Fakultatearen presentzia sendotzea ENLIGHT aliantzan, eta aldi berean beste aukera batzuk aztertzea atzerriko beste zuzenbide fakultate batzuekin eta beste diziplina eta beste ikergune batzuekin lankidetzan jarduteko.

2.- Irakasle-ikertzaileak, ikasleak eta TEKAZELak truke programetan parte hartzera bultzatzea.

3.- Gradu eta masterren ingelesezko eskaintza handitzea, beste herrialde batzuetako ikasleak erakartzeko.

4.- Fakultatean nazioarteko ekitaldi akademikoak antola daitezen bultzatzea.

II. GRADUKO ETA GRADUONDOKO ESKAINTZA ZABALTZEA

1.- UPV/EHUko beste titulazio batzuekin batera, graduako programa bateratuak ezartzea, diziplina anitzeko eskaintza erakargarri bat osatzeko.

2.- Unibertsitateekiko eta eragile sozialekiko trukeak bultzatzea, elkarrekin eskaintza akademiko berriak taxutzeko, aitorpen ofiziala izango duen prestakuntza gehigarri bat eskaintze aldera graduatuei.

3.- Masterren eta berezko tituluen eskaintza malgu bat osatzea, prestakuntza akademiko gehigarria behar duten profil jakinetarako espezializazioa eskaintzeko.

4.- Bizitza osoko prestakuntza bultzatzea, arrazoi profesional, akademiko edo sozialengatik eduki berriak ikasi gura dituztenentzat.

5.- Gure inguruko eta munduko gaur egungo arazo sozialei erreparatzen dien prestakuntza bultzatzea, justizia sozialaren premiei erantzuna emango dioten profil profesionalak sortze aldera.

III. ERAGIN SOZIAL POSITIBOA ETA GJHen SUSTAPENA

- 1.- Erreferentzia sendoa izatea genero berdintasunean, dibertsitatean, inklusioan eta garapen jasagarrian.
- 2.- Gizarte erronkei eta GJHei erantzungo dieten proiektuak aurkeztea, *Next Generation* (NGEU) Funtsen deialdiak erabilita, besteak beste.
- 3.- Zuzenbide Fakultateak daukan eragin sozial positiboa sendotzen eta bultzatzen jarraitzea, abian dituen barne ekimenen bidez eta askotariko kanpoko erakunde eta eragileekin lan eginez.

IV. PROIEKZIO SOZIAL ETA INSTITUZIONAL HANDIAGOA

- 1.- Unibertsitateko kideei eta gizarte osoari zabaldutako kongresu, jardunaldi eta topaketak antolatzea, gizartearen intereseko gai juridikoen inguruan.
- 2.- Ahalegintzea Zuzenbide Fakultatea gogoetarako eta zientziaren eta kulturaren zabalkunderako tokia izan dadin, gizarte osoari irekia, non eragile juridiko eta sozialek interes orokorreko gai juridikoez eztabaida dezaketen unibertsitatearen baitan.
- 3.- Web orriaren formatua eta edukia eta sare sozialen erabilera eguneratzea gizarteari ezagutzera emateko Zuzenbide Fakultateak egiten dituen interes sozialeko jarduerak.
- 4.- Fakultatean jasotako ezagutzak gizarteari itzultzeko ahalegina areagotzea, ikaskuntza-zerbitzu ekimenak erabiliz, hala nola Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa edo Ekogela (jasangarritasun gela) eta gure fakultatetik sortutako inpaktu sozialeko askotariko ikerketa eta proiektuak.
- 5.- Omenaldiak eta aitorpen publikoak egitea eta sariak ematea fakultatearen helburuekin lotura duten eta oinarritzko eskubideak, justizia, askatasuna eta berdintasuna bultzatzen dituzten pertsona edo erakundeei.

V. ERALDAKETA DIGITALA

- 1.- Fakultatearen profil instituzionalak sortzea sare sozialetan, bere lana ezagutzera emateko.
- 2.- Interneten bidezko ikastaroak bultzatzea, toki geografiko desberdinetan kokatutako ikasle gehiago erakartzeko.
- 3.- Azken belaunaldiko tresna digitalen erabilera sustatzea, unibertsitateko kolektiboen arteko konektibitatea areagotzeko.
- 4.- Tresna digitalik modernoak erabiltzea, prozesuak eta haiei lotutako burokrazia ahalik eta gardenenak izan daitezen eta baliabideen eta informazioaren kudeaketa eraginkorragoa izan dadin, eraldaketa digitalerako prozesuaren aurrerabideak eskaintzen duen aukera aprobetxatuz.

5.- Tresna digitalen eta adimen artifizialaren erabilera arduratsu eta inklusiboa bultzatzea, eta bermatzea haien eskurapena eta erabilera ez direla diskriminaziorako bidea.

VI.- FAKULTATEAREN ETA EGRESATUEN ARTEKO LOTURA

1.- Egresatuen erakunde bat sortzea, fakultatearen eta ikasle ohien arteko etengabeko lankidetzaz errazteko.

2.- Hitzaldi zikloak eta mintegiak antolatzea egresatuekin, beren ezagutza tekniko-profesionalak egunera ditzaten, eta intereseko beste jomuga akademiko batzuetara abia daitezen.

3.- Egresatuen lan egoerari jarraipena egitea, beren garapen profesionala ezagutzeko eta zein lanpostu betetzen ari diren jakiteko.

4.- Ikasleak bultzatzea modu aktiboan lantzerako fakultateko egresatuekiko harremanak, kolektibo baten intereseko elkarlaneko jarduerak sustatuz.

VII. KALITATE POLITIKAREN ETENGABEKO BERRIKUSPENA

1.- Bermatzea interes talde guztiek ulertzen eta onartzen dituztela abiapuntuko kalitate politika eta geroako plangintza estrategikoa, eta, horretarako, interes taldeok bultzatzea politika honen inguruko gogoetan eta definizioan parte hartzerako.

2.- Kalitatea Kudeatzeko Sistemak eraginkorra izaten jarraitzen duela eta aldi-aldi kontrolatu eta berrikusten dela bermatzea.

2.- Eginkizuna, ikuspegia eta balioak

Eginkizuna

Zuzenbide Fakultateak konpromisoa du kalitateko hezkuntzarekin, garapen jasangarriarekin eta inklusioarekin, eta bere eginkizuna du ikasleei prestakuntza integrala ematea, kritikoak eta gizartearekiko arduratsuak izan daitezen beren jardun profesionalean. Horretarako, oinarritzeko eskubideekin konprometitutako ikuspegi humanista bat bultzatzen du irakaskuntzan, ikerketan, jakintzaren transferentzian eta berrikuntzan. Hori guztia euskal kultura eta euskara sustatuz eta errespetatuz egiten da, eta aliantza estrategikoak bultzatuz udalerri, autonomia, estatu eta nazioarte mailan, goi mailako hezkuntzaren oraingo eta geroako erronkei sendotasunez aurre egite aldera.

Ikuspegia

Zuzenbide Fakultatearen nahia da erreferentzia izatea zuzenbidearen eta kriminologiaren arloko prestakuntza eta ikerketa aurreratuan, konpromisoa izanik gizarte, kultura, ekonomia eta ingurumenari lotutako erronkekin. Bere ikuspegiaren ardatza da ikerketa eredu bat bultzatzea diziplinariartekoa, nazioartekoa eta ingurune sozioekonomikoari lotua dena, eta eraldaketa soziala modu aktiboan bultzatzen duena,

jakintza zorrotz, kritiko eta berritzailea sortuz eta transferituz, liderra izateko bokazioarekin eta guztien ongiarekiko eta garapen jasangarriarekiko konpromisoarekin.

- Zuzenbide Fakultatearen guraria da bere ikasleek bikaintasun zentrotzat har dezaten, bertan ematen den prestakuntza akademikoaren kalitateagatik, etengabeko prestakuntza sustatzeagatik eta arazoak konpontzeko gaitasuna bultzatzeagatik, bai eta gizartearekiko eta enpresa ekimenen aldeko konpromisoagatik ere.
- Zuzenbide Fakultatearen helburua da bere ingurunean erreferente zientifiko, akademiko, sozial eta laborala izatea, hala autonomia erkidegoan eta estatuan nola nazioartean.
- Zuzenbide Fakultatearen nahia da bere gizarte erantzukizunagatik ezaguna izatea.
- Zuzenbide Fakultatearen asmoa da UPV/EHUn eta beste unibertsitate batzuetan erreferente izatea bere gestioaren bikaintasunagatik, berrikuntzagatik eta etengabeko hobekuntzarako gogoagatik.

Balioak

Hauek dira Zuzenbide Fakultatearen balioak:

- Zintzotasuna eta gardentasuna kudeaketan, gure jarduera ondo egiteko funtsezko tresna gisa.
- Parte hartzea eta elkarriketa, talde lanaren eta erantzukizun partekatuen bidez kolektiboki hobetzeko.
- Konpromisoa eta inplikazioa erakundearen garapenerako eta haren kide guztien gogobetetzea lortzeko.
- Erantzukizun eta lehiakortasun profesionalak, gure jardunaren betebeharrei modu positiboan erantzuteko.
- Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza, proiektuaren eta erakundearen aurrerapenean lagunduz.
- Ingurumenarekiko eta gizarte premiekiko sentsibilitatea eta erantzukizuna.

- Zerbitzu publikorako bokazioa, jarrera kritikoa eta unibertsitate bikainaren aldeko konpromisoa izatea (irakaskuntzan, ikerketan eta kudeaketan).

3. Ardatz estrategikoak

E1-Graduko eta graduondoko eskaintzaren etengabeko hobekuntza.

Ikastegiaren eskaintza eta KBBSa behin finkatuta, ardatz estrategikoetako bat da gure eskaintza etengabe hobetzen jarraitzea, xede hauek lortzeko:

- Irakaskuntza eta ikasleen errendimendua hobetzea. Honi dagokionez, nahi dugu Zuzenbide Fakultatea erreferente akademiko, sozial eta laboral bihurtzea, eta horretarako bere proposamena etengabe berritu.
- Irakaslanaren plangintza egiteko mekanismoak hobetzea.
- Fakultatean ikasitako zuzenbideko eta kriminologiako profesionalak ezagunak izatea beren prestakuntza akademiko sendoagatik, etengabeko prestakuntzarako gaitasunagatik, enpresa ekimenagatik eta herritarren arazo errealerako alternatibak eta konponbideak eskaintzeagatik gure jakintza arloen ikuspegitik.
- Etengabe harremanetan egotea gure eskaintza hobetzen eta egokitzen lagun dezaketen era guztietako erakunde eta eragile estrategikoekin.
- Ikasketa planak gizartearen premietara egokitzea.

E2- Ikasleak gure lanaren erdigunea izatea.

Ikasleak erakartzeko politika aktiboari eustea, eta haien prestakuntza integralaren aldeko hautuarekin jarraitzea. Helburu hauek ezarri ditugu:

- Batxilergoko ikastetxeekin harremanak estutzea.
- Ahal diren plaza guztietan fakultatearen irakaskuntza lanaren berri ematea, eta etorkizuneko balizko ikasleentzako aukera interesgarritzat aurkeztea.
- Ikasleei prestakuntza integrala ematea, ahalegin berezia eginez gaitasun konplexuak eskura ditzaten.
- Lanean jarraitzea praktiken eskaintza erakargarria eta askotarikoa aurkezteko.

E3- Baliabideen erabilera arrazionalizatzea eta hobetzea, gure kudeaketa eraginkorra izan dadin.

Gaur egungo egoera ekonomiko eta soziala dela eta, beharrezkoa da kudeaketa arduratsua eta neurritsua egitea. Helburu hauek ezarri ditugu:

- Kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren kulturaren sakontzea.
- Ikastegiko segurtasunaren kudeaketa eta arriskuen prebentzioa hobetzea.
- Fakultatearen KBBSa mantentzea eta hobetzea, AUDIT irizpideei jarraituz.
- Fakultatea bere konpromiso sozialagatik ezaguna izatea.
- Langileen profila fakultatearen premietara egokitzea.